

UDALBATZAREN BURUARI

Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, azter dezan, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko martxoaren 16an izan zuen bileran Altzako topo geltokia dela-eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako topo geltokiaren obrak amaituta, nabarmen gelditu da badirela zenbait egoera guztiz hobetzeko modukoak ekipamendu horretako irisgarritasuna dela-eta. Alderdi politiko honen eskariz, hainbat ekimen aurkeztu izan dira gaur egungo egoera hobetzeko eta hirian etorkizunean eraikiko diren ekipamenduetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko, Altzan gertatutakoa gerta ez dadin.

Hango bizilagunek kezaka jarraitzen dute gaur egungo geltokiak irisgarritasun unibertsala bermatzen ez duelako, geltokiko bi sarreretarako balio duen igogailu bat egon arren.

Esate baterako, gehien erabiltzen den sarreraren kasuan, Santa Barbara kaleko 4. zenbakiaren parekoan, bizilagunek gainaldera igotzeko eskailera mekanikoak edo, bestela, funtzio hori beteko duen jasogailu txiki bat ipin dezaten eskatzen jarraitzen dute. Geltokiaren sarrera horren atzealdean ipin daiteke, gaur egun erabilerarik gabeko lorategi txiki bat dagoen lekuan.

Era berean, bizilagunak kezu dira Santa Barbarako eta Larratxo pasealekuko sarreretara iristeko 15-20 zentimetroko eskailera maila bat dagoelako, irisgarritasun unibertsala eragozten duena eta mugikortasun arazoren bat duten bizilagunei beste zailtasun bat jartzen diena, geltokiko sartu-irtenaldietan laguntzeko eskudelik ez egoteaz gain.

Urrian, talde politiko honek ohartarazi zuen ekipamendu berri horrek hainbat gabezia dituela, eta Udalbatzak ekimen bat onartu zuen, besteak beste, Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen ziona berriz azter zezala geltokiko sarreraren diseinua.

Azken batzordean, ordea, zinegotzi ordezkariak, donostiarrentzat hobekuntzak eskatzen jarraitu beharrean, soil-soilik esan zuen eskumen horiek ez direla Udalarenak eta ezin dela askoz gehiago egin, Eusko Jaurlaritzari horren berri emateaz gain.

Uste dugu Altzako herritarrek Donostiako gainerako herritarrei ematen zaien tratua bera merezi dutela eta ekipamendu hori hobetu daitekeela eta hobetu egin behar dela. Hori dela eta, hauxe da talde popularrak aurkezten duen **MOZIOA**:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari inplika daitezela Altzako topo geltokia hobetzeko eta agindu ditzatela Altzako topoaren sarrerak, irisgarritasuna eta hango erabiltzaileei eragiten dieten bestelako baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren lanak.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea.